



Memoria Kutxaren Gizarte Ekintza

Aurkezpena

2014. urtea historikoa izan da Kutxaren bilakaeran, aurrezki-kutxa banku-fundazio bihurtu baita, baina Kutxaren Gizarte Ekintzak gauzatu duen jardueraren aldetik ere garrantzi handiko ekitaldia izan da, horixe baita erakundearen izateko arrazoia, lehen eta orain.

2014an, Kutxaren Gizarte Ekintzak 52,6 milioi euroko baliabideak kudeatu zituen, 1.431 ekintza egin zituen eta horietaz 973.480 pertsona baliatu ziren.

Datu biribilak dira atzera uzteko beste urte zail bat Gizarte Ekintzentzat, inork saihesterik izan ez duen baliabide-murrizketagatik. Garai hauen adierazgarri dira, eta horrek behartu gaitu 2013an asmatu eta geroztik errepikatu izan dugun printzipioan sakontzera: *gutxirekin asko eragin*. Hori da gure goiburua eta ziur gaude gurekin jarraituko duela. Hobetzen ari da pertzepzio ekonomiko orokorra, baina bizi izandako urritasunetatik asko ikasi dugu kudeaketan.

2014. urte historikoak nahi gabeko eztabaidetan murgildu du Kutxa bera. Batzuek zalantzan jartzeraino Kutxak hainbat eta hainbat jarduera eta proiektutan izan duen inplikazio egiaztatua. Horregatik egokia dirudi gure gizarteari gogoraraztea Gizarte Ekintzak garrantzi sozio-ekonomiko eta estrategiko handiko ekinbideen lehenengo lerroan hartu duela parte, baita laguntza txikiago asko ematen ere, zenbait jarduera bideragarri izaten jarraitu ahal izateko.

Jarduera hau guztia posible izan da Gizarte Ekintzak bere esku izan duelako bezeroek Kutxaren finantza-negozioan mende batez baino luzaroago sortarazi duten mozkinak. Orain Kutxabanken, Espainiako finantza-sisteman dagoen kaudimen handieneko erakundean, negozioaren mozkin horrek elikatzen gaitu, eta espero dugu etorkizunean ere jarraituko duela gu elikatzen.

Etorkizunari plataforma sendo batetik begiratzen diogu. Gizarte Ekintzaren 2014ko Memoria honetan dauden datuek eta argibideek erakusten dute, gure ustez, Gipuzkoaren ekonomia eta gizartearen garapenarekin Kutxak duen konpromisoa.

Kutxa Fundazioa

Eratu da Kutxa Banku Fundazioa

Kutxaren Batzar Nagusi Berezia urriaren 24an egin zen eta Kutxa Aurrezki Kutxa Banku Fundazio bihurtzea onartu zen bertan, eta formalki horrela geratu zen erregistratuta 2014ko abenduaren 22an.

Hiru egun lehenago, Fundazioaren Patronatua Onkologikoaren egoitzan bildu zen Kutxaren Gizarte Ekintzak bere ekintza adierazgarrienari ematen dion laguntza berresteko keinu gisa, eta Aurrekontua eta Jarduera Plana onartu zituen 2015eko ekainaren 30ean amaituko den ekitaldirako.

Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuak bere kideetako bederatzir berretsi zituen Patronatuko kide: Karmele Agirrezabala, Koldo Aulestia, Antonio Campos, Guillermo Echenique, Borja García Santa Cruz, Xabier Iturbe, José Miguel Martín Herrera, Carlos Tamayo eta Blanca Tejada.

Izendatu gabe daude Foru Aldundiari eta Donostiako Udalarari dagozkion patronatu-kideak, Patronatuko berezko kideak. Gipuzkoako Batzar Nagusien proposamenez izendatu beharreko beste lau kide ere, guztira 15 baitira, oraindik ez dira izendatu.

Patronatuko lehendakari aukeratua, Xabier Iturbek zera adierazi du: "Kutxa Aurrezki Kutxak lekukoa Kutxa Banku Fundazioari pasatzen dion honetan Gipuzkoako gizarte osoari aitortu behar zaio bere ekarpena, zuzeneko edo egoeraren arabera, Aurrezki Kutxaren —dagoeneko Banku Fundazioaren— garapenean. Kutxaren gobernu-organo izan zirenei erakunde honi eskaini dioten denbora eta ahalegina aitortu behar zaie. Baita ere, jakina, Kutxa izandakoaren langileei, bakoitzari egokitu zitzaion arduraren erakutsitako profesionaltasunagatik".



Elkartasuna

Gipuzkoa Solidarioa, elkartasun-bizitzari bideak irekitzeko topagunea

Kutxaren Gizarte Ekintzatik Gipuzkoako elkarte-ehunaren indartzea bultzatzen jarraitzen da. Elkarteen aktibatze eta antolatzea eta horien eguneroko lanaren zabalkundea apustu estrategikoak dira. Kutxa Solidarioak aliantza dinamikoak sustatzen ditu www.gipuzkoasolidarioa.info sarearen bidez.

Helburua ekinbide solidarioak pertsona guztiengana hurbiltzea da, solidaritate edo elkartasunean oinarrituriko bizi-filosofia sustatzea eta gizarte ireki, osagarri eta aktiboa sortzeko lankidetzan aritzea.

Sarea laguntza-trukean eta solidaritatearen eremuan diharduten elkarteak ikusgai bihurtuz sendotzen da. Bitartekotzaren bidez pertsonak eta elkarteak jartzen ditu harremanetan, material eta ideien, esperientzien, lan boluntarioa egiteko denbora librearen eskaintzaileak batzuetan, eskatzaileak beste batzuetan. Solidaritatean inplikaturiko taldeen jarduera ikusgai bihurtu eta zabaltzeko ere egiten du lan, elkarte handi eta ezagunak izan nahiz txiki eta ezezagunak izan.

Sarearen zabalkunde eta hedapenak une garrantzitsua bizi izan zuen maiatzean Olatu Talka ekinbidearen esparruan, eta bertan aurkeztu zen *Elkartasuna, musikaz Blai* jarduera. Ekintzarik ikusgarriena Elkartasunaren Jaiaren ingurukoa izan zen; klasiko bihurtzeko bidean doa, eta azaroan 30 elkarte bildu zituen Donostiako Okendo plazan jarritako karpan; askotariko

programazioak erakarrita, 2.000 lagun izan ziren bertan.

Plataforma berrituari dagokionez, bere maneiu edo erabilera intuitiboago eta errazagoa da; beraz, harrera ona izan du aldaketak. Bisita-erregistroa geroz eta handiagoa da (ikusitako orrialdeak ia milioi erdi izan dira 2011ko martxotik), 39.959 aurtan. Elkarteen kopurua ere hazi egin da 103 izatera iristeraino eta egindako truke-harremanak 133 izan dira.

2014an hileko e-buletinaren bederatzi zenbaki argitaratu dira eta asteburuan Gipuzkoan solidaritatearekin lotuta egingo diren ekitaldien berri emanek agenda bidaltzen zaie sareko pertsona eta erakunde guztiei. Gonbita –eta oroigarria– gure hurbilenekoekin solidaritateaz gozatzeko gure aisialdian eta jolas-denboran.

Beste ekintza batzuen artean, odola emateko jardunaldiak antolatzen dira Kutxako langileen artean, Atzegi-rekin eta bere mendi taldearekin parte-hartze inklusiboa sustatzen da aisialdi-jardueretan, eta euskararekiko sentiberatze-ekintzak egiten dira, komunitatean integratzeko tresna gisa, etorkin ugari dituzten kolektiboekin.



Elkartasuna

KutxaZabal-ek prestakuntza sozio-asistentzialerako bere aliantzak finkatu ditu European

KutxaZabal-ek jendearen mendekotasun- eta zahartze-egoerei aurre egiteko ekinbideekin bat egiten jarraitzen du, eta horretarako zaintza- eta arreta-zerbitzuen kalitatea ziurtatuko duen prestakuntza integral eta inklusiboa ematen du. Aurten finkatu egin ditu bertako nahiz Europako beste erakunde batzuekin egindako itunak.

KutxaZabal-en prestakuntza-proposamena zabala eta espezializatua da. Lanbide-trebakuntza, etengabeko prestakuntza eta familia-sare, pertsona interesatu eta eremu sozio-asistentzialerako prestakuntza-ekintza espezializatuko ikastaro homologatuak ematen ditu.

2014an Administrazioaren zentro laguntzaile bihurtu da eta urtean zehar honako hauek eman ditu: profesionalentzako etengabeko prestakuntza Hobetuz programaren bidez, langabeentzako prestakuntza Lanbideren bidez, eta ekimen pribatuko ikastaroak eta erakundeentzako profesionaltasun-ziurtagiriaren ingurukoak, guztira, 740 prestakuntza-ordu eta 261 parte-hartzaile. Gainera, lanbide-esperientzia

baliozkotzeko prozeduran aholkularitza eta ebaluaziorako laguntza-zentro bihurtzeko prozesuan dago.

Halaber, aurten Kutxa Ikasgelak programarekin lankidetzan hasi da, eta bi ekitaldi komunitario parte-hartzailetan hartu du parte, baita turismo inklusiboarekin zerikusia duten ekinbideetan ere.

KutxaZabal Europako bi *Leonardo da Vinci* proiektutan bazkide kolaboratzailea da, horietara lehenengo aldiz aurkeztu delarik Nazaret-ekin itun estrategikoa eginda. Proiektu hauen ardatza ezagutzaren eta berrikuntzaren transferentzia izaten da, eta Suedia, Alemania, Erresuma Batua, Holanda, Danimarka eta Finlandiako erakundeek parte hartzen dute horietan.

Gainera, KutxaZabal lankidetzarako euskarria da hirugarren sektorean ibilbide aitortua eta esperientzia duten erakundeentzat. Gauzatu dituen ia 250 jardueretan 3.500 lagunek hartu dute parte.



Elkartasuna

Enplegatuen laguntza garapenerako

Kutxaren Gizarte Ekintzak transmititzen duen elkartasun-espirituan oso parte-hartze aktiboa dute. Kutxatik datozen Kutxabaneko enplegatuek, Hirugarren Munduari laguntzeko Batzordearen bidez, 2014an 83.824 euro guztira hamar lankidetzako proiektuak.

Diru solidario honek El Salvadorreko landa-guneetan higijene-egoera hobetzen laguntzen du uren

saneamenduan esku hartuz eta pobrezia arintzen nekazaritzako enpresa-proiektuak sustatuz; edo ingurumen iraunkorreko hezkuntza-proiektuak bultzatzen Peruko zenbait eskualdetako eskoletan; haurren desnutrizioa arintzen Niassa aldean (Mozambiken); eta umezurten bizi-kalitatea hobetzen, garapen integrala ziurtatuz, Indian eta Mexikon; eta Afrika Erdiko Errepublikan adiskidetzeari eta bakea bultzatzera.

Kutxa Zeharo gizarte-bazterketa saihesteko aukera

Lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen lanbide-orientazioa eta lan-merkatuan bitartekotza errazteko helburuaz, Kutxaren Gizarte Ekintzak zerbitzu bat sustatu zuen, Kutxa Zeharo, eta bere kudeaketarako Gureak Taldearen lankidetzara.

2005etik jardunean, Kutxa Zeharok bost bulegoko sarea sortu du Gipuzkoan: Donostia, Arrasate, Eibar, Irun eta Zumarragan dago eta denboraldi honetan 22.172 pertsona elkarrizketatu, 9.925 enpresa bisitatu eta 5.761 kontratu berri lortu ditu. Enpleguaren bilaketan ez ezik lan-munduan sartzerakoan ere laguntza-sistemak aplikatzen dituen zerbitzu honen berezitasunetako bat, hain zuzen ere laguntze hori da, 2009. urtetik egiten duena, eta tarte honetan 7.343 ekintza egin ditu.

2014an Kutxa Zeharo-ren jarduerak eta lorturiko emaitzek adierazle historikoen ildotik jarraitu dute. Irailaren bukaera arte, 1.962 pertsona elkarrizketatu, enpresetara 492 bisita egin eta enpleguaren bilaketan 1.724 laguntze egin dira. Aipagarria da datu hau ere: 330 kontratu berri lortu dira. Lanpostuan egindako tutorizazioek programa honetako indar-gune handietako bat izaten jarraitzen dute.

2013an, Kutxa Zeharo Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaile gisa onartu zuten. Honela, 2014an, ohiko eskabideei Lanbidetik datozenak ere gehitu zaizkie; Kutxa Zeharo egiten ari den lan handi honek zerbitzu honen ezaugarriak berresten ditu.

Onkologikoa

Kudeaketa egonkorraren emaitzak bultzatu ditu

Onkologikoako zuzendaritza talde berriak 2013an martxan jarri zuen Jarduera Plana, bere onurak erakutsi zituen 2014an, eta zentroaren kudeaketa lorturiko egonkortasuna emankor izaten ari da eta nabarmen.

Jarduera Planaren ardatzak hauek dira: Zentroak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin duen itunaren bidez lorturiko iraunkortasuna, Kutxaren Gizarte Ekintzak konprometiturik duen ekarpena, hitzartu gabeko jardueraren hazkundea, baliabideen optimizazioa eta kudeaketa-sistemaren eraginkortasuna. Argudio horiei erantsi behar zaie ospitaleko azpiegituraren zati bat, erabili gabea, onkologikoak ez diren jardueretarako zabaldu izana. Hori guztia jendearen konpromisoan eta profesionaltasunean eta, noski, gaixoaren gogobetetzean oinarrituta.

Kutxako Gizarte Ekintzaren bandera-ontzia, gipuzkoar gizarteak ongien balioetsitako ekinbidea, Onkologikoa 1933an sortu zen gizartetik bertatik, herritarren ekimenez eta erakundeen erabakiz, etorkizunaren ikuspegi miresgarriaz; gaur egun oraindik badu onkologiari eskainitako zentro monografikoa sorrarazi zuen bulkada eta energia hura.

Onkologikoa, 1952az geroztik Kutxaren beraren gizarte-ekintza, erreferentziazko zentroa da minbiziari buruz Europaren hegoaldean. Azken belaunaldiko teknologia du minbiziaren tratamendurako, bere estrategia berrikuntza eta ikerketa kliniko onkologikoaren sustapenean zentratzen du eta bere gaixoei tratamendurik aurreratuenak eskaintzen dizkie medikuntza pertsonalizatuaren eremuan bere Terapia Aurreratuen Unitatearen bidez.

2004ko urtarrilean, Onkologikoak ospitale-farmaziarako munduko teknologiarik aurreratuena aurkeztu zion gizarteari: kimioterapiako banako dosiak prestatzen dituen robota, zentro onkologikoak Kiro Robotics enpresarekin egindako itunaren produktua, Mondragon Health-ek bultzatuta Aretxabaletan sortua. Hainbat herrialdetako ospitalek adierazi dute interesa Kiro

Robotics-en prototipoan, dagoeneko merkaturatzen hasia dagoelarik.

Zentroak egiten duen jarduerari buruz, 2014ko abenduaren 31ra arte Onkologikoan 2.105 gaixo sartu ziren eta ebakuntza kirurgikoak are gehiago izan ziren: 2.385. Kanpo-konsulten zerbitzutik 38.777 gaixo igaro dira.

Eman diren erradioterapia-saioak 18.255 izan dira; kimioterapiako tratamenduak 8.589. Bestalde, 2.818 endoskopia egin dira, brakiterapiako 507 tratamendu eta erradiokirurgiako 46.

Burutu diren diagnosi-azterketak aurten ere asko izan dira, eta gehien mamografiak: 47.530. Medikuntza nuklearreko 10.338 azterketa ere egin dira, eta anatomopatologikoak are gehiago, 11.919.

2014. urtean, Onkologikoan 1.361 tumore gaizto berri detektatu dira. Horien artean, eta berretsi egin da Institututik bertatik adierazten zen joera, gehienak larruzaleko tumoreak izan dira (471), eta horietako 65 melanomak. Ondoren bularreko tumoreak (224) datoz eta digestio-aparatukoak (211). Sexu-organoetako tumoreak (208) laugarren tokian daude kopuruz: 77 emakumezkoetan eta 131 gizonezkoetan. Bestelako tumoreak 247 dira.

2014an, Onkologikoak komunikazio-kanpaina sotila gauzatu du, askotan saritutako Dimensión agentziak gidatua, ideia orokor honekin: "Minbizi bakoitzak bere izena duelako". Mezu laburrak, gaixoen lekukotasun askotan oinarrituak, honela dio: "Ez daude bi minbizi berdin. Horregatik, Onkologikoako Terapia Aurreratuen Unitatetik tratamendurik berritzaileenak eskaintzen dizkiegu geure gaixoei. Zenbat eta hobeto ezagutu arerioa, orduan eta errazagoa baita garaitzea".

Ekogunea

Iraunkortasunaren eta ingurumenaren kultura gizarteari transmititzeko

Kutxa Ekogunea 2014an sendotzen ari da bere izaera, eta Kutxaren Gizarte Ekintzak zentro honetatik gauzatu nahi du bere proposamen handinahia, hots, iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko begirunea transmititzea gure gizarteari, Gipuzkoako gizarte, kultura eta ekonomiaren errealitateari lotuta betiere.

Ekogunea, ikasteko eta sentsibilizatzeko, aisialdirako, naturaz begirunez eta era arduratsuan gozatzeko ekoparke-proiektua, errealitate bat da beste alderdi askotan ere, eta horietatik garrantzitsuena gaur egun baliteke Ekoguneko Baratze Parkea izatea.

Hazten ari den sarea

159 lur-zatirekin, Gipuzkoako baratze-sarearen egoitza nagusia da eta erreferente gainerakoentzat. Halaber, topagune bat da aisialdi aktiborako, non, barazkiak era ekologikoan lantzeaz gain, hainbat talderen arteko harremana bultzatzen baita. Kutxa Ekoguneako baratzetatik datozen produktuak autokontsumorako dira, inolako onura ekonomikorako aukerarik gabe. Hernani, Lasarte eta Donostiako 200 baratze-kidek baino gehiagok beren baratzeko lurak lantzen dituzte Ekogunean.

2014an hazi egin da baratze-parkeen sarea, martxan jarri baitira Erretereriakoak (Arramendiko parkea) eta Azpeitikoak (bi lekutan: Olatz eta Otzaka). Eta Lezokoan dagoeneko egin da azoka bat: bertan ogia, gazta, landareak eta eskulanak erosi ahal izan zituzten bisitariek.

Udazken festa

Ekogunearen egoitzan udazken festa izan zen urrian; familientzako ekintzaz betea, urteko EkoBiretako azkena egiteaz gain, bisita gidatuak izan ziren bertan, argazki-maratoia, lantegiak eta, kolofoi gisa, Dora Salazar nafar artistaren *Mujer Árbol* eskulturaren inaugurazioa.

Urtean zehar izan ziren Ekobiraren beste edizio batzuk Soraluzen, Irunen eta Bergaran 4.000 bisitari baino gehiagorekin. Ekobira feria ibiltaria da eta bere helburua

kontsumo iraunkorra, eta herritarren eguneroko kontsumoa arduratsuagoa eta iraunkorragoa izatea.

Ontziratu zaitez!

Neurri handi batean azokekin lotuta, "Ontziratu zaitez!" kanpainarekin jarraitu da: kanpaina honetarako diseinatutako tupperrak banatzen dira, eta kanpaina egiten den herrietako arrandegi eta harategietan erabiltzen dira ontziak. 2014an 10.000 tupper banatu dira Bergara, Soraluze, Arrasate eta Antzuolan.

Etxeko ura

Etxeko Ura kanpaina egiten ere jarraitu da; beste herrialde askotako ostalaritzan oso zabaldua dagoen ohitura zabaldu nahi da Gipuzkoan ere, oraindik urria baita hemen, hots, kanilako ura zerbitzatzea taberna eta jatetxeetako mahaietan; horretarako beirazko pitxerrak, berrerabilgarriak, ematen zaizkie doan. Joan zen abenduan Urola Garaira (Zumarraga, Urretxu, Legazpi eta Ezkio-Itsasora) iritsi ondoren, establezimendu asko sartu dira kanpainan eta ia 1.500 pitxer banatu dira. Proposamen honi lotuta ekinbide ibiltari umoretsu bat gauzatu da: "ezagutu grifoterapia".

Bertako eta garaiko produktuak

2014ko ekinbideen artean, berrikuntza interesgarria izan da "Baratzeko estreinaldi handiak" programa, ekainean Hernanin izandako esperientzia pilotua, eta horrekin, bertako eta sasoiko produktuak balioan jartzeaz gain, gizartearen kontsumo-ohituretan eragin nahi da frutak eta barazkiak erosten direnean lau urtarotan, betiere erosten ditugun produktu freskoen jatorria eta kontsumo-aldia ezagutzeko. Osagarri batekin: edozein erabiltzailek deskarga dezake mugikorrerako 'Garaikoa' aplikazioa. Doakoa da, Iphone eta Android-ekin bateragarria, eta sasoiko barazkiak eta frutak 4 hizkuntzatan —euskaraz, gaztelaniaz, galegoz eta katalanez— identifikatzen ditu.



Hitzarmenak eta akordioak

Bestalde, Inerdatu energia-kudeatzaileak martxan jarri zuen esperientzia pilotuaren balantzea egin da; Astigarragako Udalaren eta Kutxa Ekogunearen artean izenpeturiko esparru hitzarmenaren barruan sartzen da, eta helburua energiaren udal-kudeaketa optimizatzea eta energia-eraginkortasuna sustatzea zen. Energia elektrikoa, termikoa, eta uraren kontsumoa monitorizatzeko sistema honekin, argiterian kontsumoa %17 inguru murriztu ahal izan da, eta 24.500€ inguruko aurrezkoa esan nahi du horrek.

2014an, Kutxa Ekoguneak beste jarduera asko gauzatu ditu, eta, besteak beste, akordioa izenpetu du GHK-rekin, Gipuzkoan gai organikoaren bilketa bereziari esker lorturiko konpostaz 'Baratze Parke Sarea' hornitzeko. Erreferente izango da hondakin organikoen zikloa ixteko,

sukaldeko hondarrak, barazki gozo bihurtuta, berriro gure platerera itzuliko baitira.

Dibertsioa euskaraz

Eta euskaraz dibertitzeko gune bat: hirugarren Euskararen Ginkana: bertan 42 taldek hartu dute parte, hainbat izaera eta eskualdetako jendearekin. Lasarte-Oriako batukada taldearen eta Algortako Bertso Eskolaren artean banatu da 3.000€ko saria, beren proiektuak finantzatzeko.

Gaur egun Kutxa Ekoguneak Gipuzkoan zehar martxan dituen egitasmoak proiektuen mapan ikus daitezke: www.ekogunea.net.



Eureka!

Markak hautsi diren urtea 167.219 bisitarirekin

Eureka! Zientzia Museoa, bere hamahirugarren urtean, gizartearen zerbitzura dagoen kultura- eta hezkuntza-azpiegitura bat izaten jarraitzen du. Museoaren bisitariak, gizartea bera bezala, heterogeneoak dira profilei dagokienez. Hezkuntza-komunitateak bere irakaslanaren osagarri bat du baliabide honetan, eta ikasleak motibatuzeko plataforma bikaina da. Bitartean, helduen eta aisialdiko taldeek aukera paregabea dute beren ezagutza-premiak elikatzen jarraitzeko. Baina familiak eta partikularren aisialdiko bisitak dira museoari kultura-aisiaren erreferente estatusa ematen diotenak.

Museo elkarreragile hau ukitu, jolastu eta ikasiz entretenitzeko pentsaturiko gunea da: 170 modulu elkarreragile baino gehiago ditu, planetario digitala, astronomia-behatokia eta simulagailuen areto modernoak. Eta toki horietan, abenduaren 31era arte, 4.925 jarduera egin dira aretoko animazio, zientzia-ikusketak eta bisita gidatuen artean. Jarduera horiek lagungarri izan dira bisitariaren harremana zientzia-edukiarekin atseginagoa izan dadin, begirale espezializatuentzako batek lagunduta egiten direlako, eta hauek zuzen-zuzenean laguntzen dutelako zientzia-printzipioak ulertzen.

2014an lehenengo bederatzi hilabeteetan, museoaren bisitari kopurua 167.219koa izan zen. Partikularrak (batez ere, familiak) izan dira bisitarien erdia (%53,35), ikasleena izan da bigarren talde handia (%35,80) eta gainerakoak beste talde batzuk (%6,83) eta enpresetatik datozen bisitariak (%4,02) izan dira.

Bisitarien artean, erdia baino gehiago (%58,09) gipuzkoar jatorrikoak dira. Gainerako EAETik eta Nafarroatik %24,27 etorri dira, Bizkaia buru dela (%14,65). Frantziako bisitariak, geroz eta gehiago, %10,27 izan dira.

2014ko hilabete hauetan familia-bisitentzat indartu egin da simulagailuen aretoa, 29.073 pertsona bertaratzea lortu baitu.

Planetarioa

Museoan dago gure inguruko planetario onenetako eta modernoenetako bat 140 tokirekin, tresna hobezina astronomia irakasteko. 2014an "Zerua eta zu" sortu da, zuzenean egiteko produkzio propioa, eta abian jarri da "Zerua ezagutzen" seriea. Azken jarduera honek aldian behin, solstizio eta ekinozioekin bat etorritik, aukera ematen du bisitariei erakusteko nolakoa izango den



zerua ondorengo lau hilabeteetan. Baita ere planetarioan ikus-entzunezko kontzertu bat eman da Andoaingo Udal Musika Eskolarekin lankidetzan (2014ko ekainean), eta horrela bi gauza ospatu ahal izan genituen: udako solstizioa eta Musikaren Nazioarteko Eguna. Planetarioan 55.617 ikusle izan dira urte bukaera arte.

Eureka! Zientzia Museoak jarduera bizia garatu du astronomiaren inguruan: bisitak astronomia-behatokira (2014an 14), astronomiaren hastapenei buruzko ikastaroa (2014ko martxo-apirila), Perseidak ikusteko zientzia-irteerak (Uxue, 2014ko abuztuan), edo "Astrofotografia" hitzaldia, Andreas Heidenreich zientzialariak eman zuena (2014ko ekainean).

Udaleku irekiak

Eureka! Zientzia Museoa, familien premiak antzemateko beti adi, ohartu zen eskolako oporraldia ez dela beti bat etortzen lan-jarduerarekin, eta tarte horietan badagoela gizarte-lana eta hezkuntza-lana egiterik. Zientziatxokoak hausnarketa horren emaitza dira, eta oporraldietan, zubi eta jaiegunetan "udaleku irekiak" eskaintzen dituzte jolas- eta zientzia-edukiarekin; horrela gaztetxoek aukera dute zerbait egiteko goizez, aukera gisa jangela-zerbitzua ere eskaintzen zaielarik. Aurten zientziatxokoen 16 txanda izan dira, eta 706 haur eta gaztetxok hartu dute parte.

Datorrena

"Bizitza Zientzifikoaren Topaketaren" 4. edizioa ikasleen eta zientzia-profesionalen artean egin zen urrian, eta berriro utzi zuen agerian museoak betetzen duen bitartekotza-lan garrantzitsua, ikasleak zientziaren eremuko karrera profesional bat aukeratzeko motibatu behar direnean. DBHko eta Batxilergoko 4. mailako 200 ikaslek hartu zuten parte, eta egin beharko duten hautaketa handiaren aurrean, aukera izan zuten zientzia-arloko 29 profesionalekin egoteko, hauek beren lanetan duten esperientzia azaldu zieten.

Azaroan Zientziaren Astea beste gertaera garrantzitsu bat izan zen, museoak aste hartan eskaini zituen jarduerekin: Plastinazio gelara bisita gidatuak eta "Sublime CO₂" zientzia-ikuskitzuna, besteak beste. Astea bukatzeko, sarrera libreko eguna izan zen eta bertan 2.658 bisitari izan ziren.

Zientzia lankidetzan

Museoak baterako bisitak ere eskaintzen ditu beste erakunde edo museo batzuekin -adibidez, Biarritz Océan, Gipuzkoako Parketxe sare edo Ekogunearekin- sinaturiko lankidetzak-akordioei esker, bisitarien joan-etorria sustatuz hainbat erakunderen artean.



Erakusketak

Chillida urtea Kubo-Kutxa aretoan: 92.300 bisitari 2014an

Gertaera batek markatu du Kubo-Kutxa aretoaren jarduera 2014an: erakusketa berezi bat, Eduardo Chillidaren figurari eskainia, Donostian eta Gipuzkoan aurtengo udako erreferentzia handia izan da. Hiru hilabetean *chillida. bideak / caminos erakusketak* 45.000 lagun baino gehiago ekarri zituen aretora 130 lan ikustera, eta hauek Eduardo Chillidak bere ibilbidean erabili zituen askotariko tekniken adierazgarri ziren.

Erakusketa honen berezitasunak beste ekintza batzuk ere sortu zituen: astean lau aldiz Chillidaren idazki baten irakurketa dramatizatua, atea itxita egindako bisita gidatuak edo familientzako tailerrak. Erakusketa zela-eta argitara emandako katalogoak ere oso harrera ona izan du.

Erreleboa arte fantastikoaren eskutik iritsi zen aretora. Irudi fantastikoa/Imagen fantástica erakusketa 2015eko urtarrila bukatu arte egongo da ikusgai, eta fantastikoaren gai konplexu eta heterodoxo honi buruzko arte-adierazpenen bildumatxoa da: 52 artistaren 79 lanek —margolanak, marrazkiak, grabatuak, argazkiak, filmak eta bideo-sorkuntzak— giro misteriozua, groteskoa, enigmatikoa, alegiazkoa, munstrozkoa, onirikoa... sortzea lortzen dute.

Kubo-Kutxa aretoak oso erakusketa interesgarri batekin hasi zuen urtea, Kutxa Kultur Hiria ekinbidearen inguruan bildutako bertako gazte sortzaileei eskainia; eta ondoren argazki-erakusketa arrakastatsu bat etorri zen, "*Català-Roca. Maisulanak / Obras maestras*", joan zen mendean 50eko hamarkadan argazkilaritza berritzeko funtsezko argazkilari baten lana ikertu eta berreskuratzeko proiektu handi baten emaitza.

Orain arte, 80.751 lagun izan dira aretoan, eta urri honetan egingo du urteko laugarren proposamena, arte fantastikoaren inguruan.

Urte osoan 92.300 pertsona izan ziren aretoan.

Profil apala Boulevard-en

Hiru aretoetako batek bakarrik, nagusiak, izan du jarduera 2014an eta, kasu guztietan, aretoa beste batzuei laga zaie jarduera egiteko. Bata bestearen ondoren 11 erakusketa izan dira, eta herritarren aldetik oso harrera ona izan dute, 36.335 ikusle bildu baitira. Erakusketen artean bereziki aipatzekoa da zinemari buruzko argazkilaritzarena, Zinemaldiarekin batera egina, Telefónica fundazioak lagatakoa. Eta herritarren onarpenik handiena, ohi bezala, jaiotzen erakusketarekin iritsi zen, urtarrilaren 6an bukatu zelarik.



Kutxateka

Kutxatekak Bidegileak Funtsaren digitalizazioa burutu du

Kutxateka Kutxaren kultura ondasunak gordetzen diren toki birtuala da, eta bere helburua da erakundeak daukan dokumentu, arte eta historiako ondare guztia balioan jarri eta sozializatzea. Bere ondasunik ezagunena, bere tamaina ikaragarriagatik, fototeka da, gutxi gorabehera milioi bat argazkiko funtsa baita.

Kutxatekaren berrikuntza material handia 2014an digitalizatzeko bertikaleko ekipamendua erostea izan da, era guztietako objektuak eta tamainak digitalizatzeko aukerak osatzen dituena. Eta urtean zehar lau funts berriren dohaintza onartu da bertan: Feliziano Etxaniz, Ignacio M^a Barriola, Castilla Moleda eta Antonio Alonso-ren funtsak.

Irudi horiek digitalizatzeko 2008an hasi zuen lanean jarraitu du 2014an, bere baliabideekin. Amaitu da Bidegileak Funtsaren digitalizatzeari; garrantzi handikoa, argazkigintzaren hasierako historiaren berri ematen duen funtsa baita, irudiz irudi dokumentatua eta argazki-objektuak biltzen dituena, baita argazkiak ere era guztietako euskarrietan.

Feliciano Etxaniz funtsa ere digitalizatu da, baita Zarauzko Photomuseum-etik etorritako irudi nagusien zati bat ere.

Kutxatekaren funtsek, interes artistiko eta dokumental handikoak, gure ingurune hurbileko historia ez ezik, argazkigintzaren benetako historia ere osatzen dute, eta profesionalen, aztertzaileen eta oro har jende guztiaren eskura daude orain. Argazki hauek zenbait erakusketa, argitalpen eta liburu espezializatutarako eskatu izan dira. Irudiak bertako prentsan agertzen dira egunero eta aldian behin, baina gero eta sarriago, estatu osoko aldizkarietan, paperean nahiz formatu digitalean.

Balio handiko arte-patrimoniaioa

Kutxaren Arte Patrimoniaioa osatzen duten obra nagusiei buruz balorazio-lana egin dute adituek, eta bilduma garrantzitsua zela bagenekien arren, orain bere benetako garrantzia hobeto ezagutu dugu, bai ekonomia aldetik eta bai erreferentzia gisa.

Ondare-funts hau aberastu egin dute eskuratu diren lan berriek (gehienak dohaintzak izan dira), eta gero eta gehiago eskatzen digute kanpotik erakusketak aberasteko, ez Euskadin bakarrik, baita Galizian, Andaluzian eta Alemanian ere.



kutxa ikasgelak

Eskaintza Gipuzkoako 28 udalerritan

Kutxa Ikasgelak programak gure hezkuntza-sisteman ohikoa den formatua berreskuratu du eta 2014-2015 ikasturterako parte-hartzaileen kopurua gehitu egin da 2.000 pertsonaraino: %21eko hazkundera esan nahi du horrek. Badirudi joera hau berretsi egin dela udaberriko jardueretarako izen-emateen lehenengo datuekin.

Prestakuntza-eskaintzak zaletasunak garatzen lagundu nahi du, errealitate berriekin harremana izaten eta trebetasunak handiagotzen, eta orain are handiagoa da eta lehen baino ere askotarikoagoa, eta ohiko eremuez gain, berrikuntza gisa, iraunkortasunarekin, elkartasunarekin eta gizarte-laguntzarekin zerikusia duten ikastaroak sartu ditu.

Kutxa Ikasgelak programaren prestakuntza-eskaintza askotarikoa da eta bertan sartzen dira gorputz- eta

osasun-jarduerak, teknikoak eta artistikoak, ingurumenari buruzkoak, dantza eta antzerkia, margotzea eta marraztea, hizkuntzak, informatika, etxeko lanak, literatura-arteak, gastronomia eta trebetasun eta garapen pertsonala, hitzaldiez gain. Ia 300 jarduera gauzatzen dira.

Kutxa Ikasgelak Gipuzkoa osora –Alegia, Andoain, Arama, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Beasain, Berastegi, Bergara, Berrobi, Bidegoian, Eibar, Elgoibar, Erretera, Errezil, Eskoriatza, Gabiria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Oñati, Ordizia, Donostia, Tolosa, Urnieta, Zarautz eta Zumaiara– hedatzen dira, eta lurralde osorako erreferente global bihurtzen ditu horrek.

Kutxa KulturTabakalera

Bere guneak zehaztu ditu

Tabakalera-rekin hartutako konpromisoak Gizarte Ekintzaren kultura-arloko giza eta ekonomiazko baliabideen zati on bat bereganatzen du, eta Kutxak Gipuzkoaren eta bere proiektu estrategikoen alde egiten duen apustuaren adibide nagusia da.

Gizarte Ekintzak lanean eman du urte osoan Tabakalera sartzeko izango duen proiektua zehazten: fabrika Gipuzkoa osorako kultura-eskaintza sortzeko beharrezko azpiegituraz hornituta egongo da, kultura-bizikidetzarako topalekua izango da, gora egiten ari diren artista berrientzako eta kultura-eragileentzako aukerako tokiekin, eta mailarik goreneko erakusketa-proposamenak egingo ditu.

Kutxaren kulturak Tabakalera Kutxateka barne izango du; moda eta musika munduko talentu gazte amateurrei egoteko guneak lagako dizkie; Kutxa Ikasgelak eta Class-ek aisia eta kulturarako egiten duten programa osoa ere hartuko du... Eta oso leku zabala izango denez, bertan egongo dira erakusketak egiteko lekua, artista amateurren kluba eta kultura-bizikidetzarako *coworking* gunea, nortasun propioarekin, ezagutza sortuko duena.

Kultura Garaikidearen Zentroa aurtengo ekain edo uztailan irekiko da, eta irailean espero da martxan izatea. Kutxa Kultur lehen lerroan izango da dagoeneko definizio-maila handia duen proiektuarekin.

Kutxa Kultur Class

Plataforma gazteak lehen urratsak egin ditu

Lan handi batek, aliantza-sare zabala eratzeko aukera eman duenak, Gizarte Ekintzaren prestakuntza-eskaintzarik berritzaileena ekarri du: Kutxa Kultur Class, Gipuzkoako gazte sortzaileentzako proposamen gaztea.

Honela, Gipuzkoako gazte sortzaileek emandako 168 tailerrek, sei arlotan bilduta, osatzen dute Kutxa Kultur Class plataforma. Proposamen handinahia da, bere helburua gazte sortzaileak bultzatu eta horiei laguntzea da talentu sortzailearen erakusketa eta zabalkunderako euskarri gisa, hortik egungo eta etorkizuneko errealitate indartsu bat ikusgai bihurtzeko gizarte osoarentzat.

Plataforma 18 eta 35 urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta 2014-2015erako proposatzen duen jarduera honako arlo hauetan biltzen da: artea, gastronomia, diseinua eta teknologia berriak, moda eta musika. Orain ia Donostian bakarrik zertzen den esperientzia pilotua

datozen urteetan Gipuzkoa osora hedatzea aurreikusten da.

Positiboki balioetsi da 2014ko azken hiruhilekoan gauzaturiko lehen fasea eta, batez ere, programa honen zabalkunderako ahalegin garrantzitsuan jasotako emaitzak; izan ere, datozen hiru urteetan benetako Kutxa Kultur Class komunitate bat sortu nahi da programa honekin.

Kutxa Kultur Musika

Gure aurreko jarduerarekin zeharka lotua, 2014an Kutxa Kultur Musikaren beste edizio bat egin da, hamar talde zaletu aukeratu dituelarik sari bikoitzarekin: batetik esku-dirua, eta bestetik, garrantzitsuagoa, bi kontzertutan parte hartzea ziurtatuko duena, horietako bat Igeldoko Kutxa Kultur Festibal arrakastatsua, iraileko musika-erreferentzia, izan daitekeena.

www.kutxakultur.com

TAILERRAK
TALLERES

**KUTXA
KULTUR
CLASS**

Izen-emateak / inscripciones:


**URTARRILAREN 26tik AURRERA
A PARTIR DEL 26 DE ENERO**

Do It Yourself. Pintando música. Doblaje. Ekologia. Ukelele. Posado fotográfico. Nazioarteko sukaldaritza. Costura creativa. Illustrator. Vintage. Amigurimi. Pintura sobre seda. Música electrónica. Bame-Diseinua. Jazz...

www.kutxakultur.com
facebook.com/kutxakultur

SORMENAREN PLATAFORMA, GAZTE ETA HURBULENTIA
PLATAFORMA DE LA CREATIVIDAD JUVEN Y ESCOLAR

PRIMAVERA

k kutxa gizarte ekintza 

15

Lankidetzak

Ahaleginduta mantentzen den konpromisoa

Gogor ahaleginduta eta gizarte-eragileen ulerkuntzarekin, jatorria beste gizarte-istantzia batzuetan, herritar nahiz erakundezkoetan, duten proiektu askotan parte hartzen jarraitu ahal izan du Kutzaren Gizarte Ekintzak, historikoki egin izan duen zerbait, alegia. Egoera ekonomikoaren ondoriozko zailtasunak gorabehera, errepikatzen diren laguntzak eta garrantzi handiko hitzarmenak gauzatuz doaz, eta aukeraren zain daude beste batzuk.

Hitzarturiko lankidetzak gehienak, 2013ko urte zailean eman ezin izan zirenak, aurten ase dira guztiz edo partzialki. Kasu hauen artean Hondarribia eta Aretxabaletako udalak, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bergarako UNED, Jakiunde, Orkestra, Inbiomed, Arangoitia fundazioa eta abar daude.

Eta ahalegina sendotu egin da hitzarmenei ez dagozkien laguntza eta lankidetzak asetzeko, horietako asko musikari lotuak: Tolosako Abesbatzen Lehiaketa, Errenteriako Bandaren 125. urteurrena, Eresbil, Orfeoi Donostiarra, Easo Abesbatza, Andra Mari Abesbatza, Euskadiko Orkestra... Eta beste batzuen artean, Tolosako Topic, Orioko Kilometroak, DFeria, Soziolingustika klusterra... ere badaude.

Iaz gertatu zen bezalaxe, Kutxabanken Babes-ekintzen sailak kopuru txikiko laguntza askori egin die aurre, baldin eta nolabaiteko merkataritza-ikuspegia bazuten, eta Kutzak Lurraldearekin duen konpromisoa berresten laguntzen du horrek.

Ganbera musika

Gipuzkokoako musika-ziklo bakarra

Udaberrian egindako bost kontzertuk osatu zuten ezaugarri hauetako bosgarren zikloa, Gipuzkoan ganbera-musikari eskainitako bakarra eta hitzordu bakoitzean Kutzako ekitaldi-aretoa betetzen duena. Ziklo hau Gizarte Ekintzak sustatu eta antolatzen du Musikene, Donostia Musika eta El Diario Vasco-ren laguntzaz.

Aurten Hirubi eta Aleia bostekoek, DMC hirukoteak, Ensemble Shiro-k, Calíope taldeak eta, berritasun handi gisa, kantu-proposamen orijinala lau soprano pianoaren akonpainamenduaz emana, eta ziur asko hurrengo zikloetan errepikatuko dena, lortu zuen arrakastagatik.

Argitalpenak

Chillidaren Katalogo arrazoitua, argitalpenetako izarra

Eduardo Chillidaren Katalogo Arrazoituaren lehen liburukiaz, donostiar sortzaileak 1948 eta 1973 artean eginiko eskulturak jasotzen dituenaz, aurkezpen ikusgarria egin zen leku ezin egokiagoan, Chillida-Leku-ko Zabalaga baserrian alegia, katalogoaren argitalpenaren babeslea den Kutxarentzat ireki zelarik horretarako.

Eduardo Chillidaren Katalogo Arrazoituaren lehen liburukia, Nereak ezin hobeto argitaratua, formatu handiko ia 400 obra biltzen dituen lan monumentalada, eta aukera ematen du Chillidak Frantzian bizi izan zen urteetan eta Hernanin eta Donostian igarotako lehen lan-urteetan egindako eskultura guztiak era kronologikoan identifikatzeko.


Sorkuntzaren lehenengo etapa honetan, Eduardo Chillidak 274 lan egin zituen hainbat material erabiliz: burdin forjatuan lan egiten aitzindari izan zen, eta

altzairua, brontzea, harria, alabastroa, marmola, zura edo buztin errea ere erabili zituen, besteak beste.

Katalogaturiko pieza bakoitzaz argibide zehatzak ematen dira materialez, neurriez, jabeez, ikusgai egon den erakusketa nagusiez eta dagokion bibliografiaz, dena dokumentalki egiaztaturik, eta argazki-errep dukzio bat edo gehiagorekin batera.

Argitalpenen eremuan, Gizarte Ekintzak Etxepare Institutuarekin ere lan egin zuen disko-liburu bat argitaratzeko, egileak Arkaitz Mendoza piano-jotzailea eta Harkaitz Cano idazlea direlarik.

Eta argitalpen-proiektu propio gisa, 2014an, Donostiari buruzko Azterketa Historikoen Buletinaren beste zenbaki bat ere kaleratu zen, 47.a, hain zuzen.



Gaztedi programa

Haur eta gaztetxoentzako aisialdia eta kultura

Gaztedi Klubeko 470 neska-mutiko 2014. urtean Arotz-Eneako udaleku paregabe hartu dute parte. Ingurumen-eskola hau, natura aurkitu eta balioesten, errespetatzen eta zaintzen ikasteko lekurik onenetakoa da. Leku abegitsua da, bertako lantaldeak eta hezkuntza-programak ingurumenean dutelarik izateko arrazoi nagusia. 2014an, 62 eskoletako 3.355 ikaslek ahalbidetzen duen lekua aurkitu dute Arotz-Enean, esandakoaz gain, aisialdia, kultura eta bizikidetzaz uztartzeko.

Eta horiek uztartzeko beste aukera zukutsua, Donostia Ezagutu (eta Irun Ezagutu) uztaila eta abuztuko udaleku irekien bidez eskaintzen dena da. Aurten berriro 900 neska-mutiko ikusi ditugu hirian zehar, Kutxaren Gaztedi Klubaren ikurra den hartza txanoan, elastikoan eta bizkar-zorroan dutela. Izenak dioen moduan, neska-mutikoek jolasen bidez norberaren herriko txoko eta istorioak ezagutzeko parada ezin hobea izan dute, begiak zein gogoak zabal arazten baitizkie ekimen honek. Arrantza kultura berreskuratu dute itsas zein ibai bazterrek kanaberaz josiz, surf, skate eta herri kirolak egin dituzte, Kubo-Kutxa aretoan Chillida eta bere lana ezagutu dute, Ekogunean ingurumena landu dute, Eureka! Zientzia Museoan ikerketa lanetan aritu dira, azoka fruituak erosiz ezagutu dute, baserriak bisitatu dituzte, Hernaniko igerilekuan jolasean aritu dira, kultur etxeetako ipuin kontaketa parte hartu dute egin

dute, Gipuzkoako hainbat museo eta parketxe bisitatu dute. Eta guzti hori, "lagun taldea" lelo pean, beraien arteko harremanak bultzatuz.

Programa zabal eta anitz hau euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egin da aurtengoan. Begirale prestatu eta motibatuei esker lortu da helburuak betetzea, lasaitasuna ematen dietelarik urtero deialdi honen zain egoten diren familiei. Era berean zain egoten dira Gaztedi Klubak oporraldietarako tailer eta bestelako proposamenak noiz egingo.

Aurten, gainera, bai udaleku itxi zein irekiek Gizarte Ekintzaren alderdi solidarioan parte hartu dute; izan ere, haurrek dituzten behar desberdinetara egokituz aniztasuna zaintzeaz gain, baliabide ekonomiko mugatuak dituzten familientzat eskura jarri dituzte doako lau postu Arotz-Enearen kasuan, beste 10 Donostia Ezagutu eta beste hiru Irun Ezagutu programetan.

Beste urte batez xake-ikastaroak, arlo desberdinetako tailerrak, arrantzaren hastapenak, eta Port Aventura eta Astunera elurretara irteerak antolatu dira, beti ere aisialdia eta kultura uztartzeko asmoz.



Komunikazioa

Asteroko newsletterra komunikazio-tresna berri bat bihurtu da

Orain arte Kutxak eta bere Gizarte Ekintzak bere zerbitzuen erabiltzaileekin harremanetan egoteko erabiltzen zituzten tresna ohiko eta elektronikoz guztiez gain, 2014ko apirilean komunikazio-tresna berri bat sortu zen: Gizarte Ekintzaren newsletterra.

Urtearen bukaerara arte igaro diren zortzi hilabeteetan, astero-astero, 33 aldiz agertu da newsletterra, eta Kutxak bere jarduera-eremu guztietan egiten duen lanari buruzko 150 albiste inguru zabaldu ditu.

Gutxi gorabehera 4.000 gipuzkoarrek (eta hilero gehituz doa kopurua) jasotzen dute eskutitz elektronikoz hau informazio labur eta zehatzarekin, eta albiste bakoitzean jartzen diren esteken bidez, gai jakin horietan sakontzeko aukera zabaltzen du.



Kutxa Aretoak

Askotariko 477 ekitaldi izan dira

Ongi kokaturiko eta beren premiak asetzeko azpiegituraz ongi hornituriko aretoak erabili ahal izatea da Gizarte Ekintzak era guztietako taldeei eskaintzen dien gauza erakargarrietako bat, beren jarduerak egiteko instalazio hauetara jotzen dutenean.

Honela, bada, Gizarte Ekintzak berak sustatzen dituen ekitaldien eta beste gizarte-talde batzuek zertzen dituztenen artean, Kutxaren aretoetan jarduera handia izaten da: 2014an 37.757 lagunek hartu dute parte instalazio hauetan egin diren askotariko 477 ekitaldietan.

Egin diren 166 hitzaldiek bildu dute jende kopururik handiena: 14.252 guztira. Era bateko eta besteko 101 bileretan 7.108 pertsona elkartu dira. Kutxa aretoetan egin diren 63 ikastaroetan 3.620 lagunek hartu dute parte. 62 zinema-emanaldietan 5.184 ikusle izan dira. Egin diren 11 kontzertuetan 2.435 entzule izan dira eta 10 antzerki-saioretara 820 ikusle bildu dira. Beste 64 ekitaldiek, hainbat gairi buruzkoek, 4.338 pertsona ekarri dituzte Kutxako aretoetaraino, horrela osatuz parte-hartzaileen zerrenda luzea.

M 2014

